kirol
...eta
kitto!
747 zkia. 2011-1-14
ASTEKARIA
TOKIKOM




# Urteetako lanaren errekonozimendua

orain duzu aukera!
aek
matrikula zabalik
www.aek.org
aek
Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org



RPS 04/02
IRAZABAL
clínica dental
Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552
Negu honetan
zure irribarrea modan
ANTONIO MURILLO Doktorea:
Masterra Periodontzian eta Inplantologian
AINHOA ZULUETA Doktorea:
Odontologoa
BENETAKO PAZIENTEAREN IRUDIA
DESKONTUA
%10
Protesiak
Ortodontzia
Inplantologia
Periodontzia
DIAGNOSTIKOA KONPROMISO GABE



ONDO ENTZUTEA
GOZAMENA DA
Zatoz entzuteko modu naturalena ezagutzera:
belarri bi izanda, zergatik bakarra erabili?
ENTZUMEN-ZERBITZU
BERRIA EZAGUTZERA ETORRI
Errebal, 14 20600 Eibar
GIPUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com
natural audio
PLAZAOLA
naturalaudio.net



> klinika kortazar
Gidabaimenak eta armabaimenak

...eta kitto! Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
FAXA:
943 20 28 72
Astekariaren E-MAILak:
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
Elkartearen E-MAILak:
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Itziar Albizu
Adrian Alvarez
Maider Aranberri
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA:
Koldo Mitxelena
ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi
ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez
HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu
Belen Ulazia
Tfnoa: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz
TIRADA:
*8.000 ale*
INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A:
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

**HAIXE GORRI.-** Haize hotza. Gaztelerazko ***'cierzo'***. *"Arpegia ebateko moduko Haizegorria ebillen orduan sasoian".*
**AHIXEZKO.-** Karabina, aire komprimituzko eskopeta txikia. *"Haixezkuak Nobertotxuanian eta Baskaranenian egitten ziran".*

# ESKUTITZAK

### GILTZAPERA ERE, EMAKUMEEN INDARRA HELDU DADILA!

Denbora pasa da, bai: ia 4 hilabete, baina, oraindik ere, Aniaizen tortura testigantza oroitzean oilo ipurdia jartzen zaigu. Ezin dugu ahaztu nola kontatzen zuen Aniaizek urriaren 4an egindako elkarrizketan: *"... Tortura, gainera, jazarpen sexuala ere bihurtu zen. Etengabea izan zen jazarpen sexuala, autoan sartu nindutenetik. Biluztu egin ninduten, ukitu, bortxatuko nindutela esan, zakila ukiarazi. Eurekin lo egitera joan behar nuela esaten zidaten, eskutik hartzen ninduten. Niri begira jarri eta komentarioak egiten zizkidaten; bitartean, gorputz guztia ukitzen zidaten. Bortxatuko nindutenaren plantak egin, mehatxuak, ahoa ukitu, titiburuak, laztanak. Bosgarren egunean alua ukitu zidaten...".*

Ez dugu ahazten euskal emakumeok, munduko beste herrialde askotan bezala, tortura berezitua sufritzen dugula, sexu-konnotazio eta sexismoz jositako tortura metodoen erabilpenaz. Indarkeria mota hori emakumeenganako indarkeria ere badela salatu nahi dugu, Eibarko Emakumeen Mahaiko partaide, emakume eta Aniaizen herrikide bezala.

Zer da, ba, emakumeenganako indarkeria? Etxe barruan, gizonek emakumeengan egiten duten indarkeria soilik? Guretzat ez, emakumeen aurkako indarkeria modu ugaritan azaltzen da egunero gure gizartean: supermerkatuan, lanean, kalean, eskoletan, kartzeletan, polizia-etxeetan, inkomunikazio aldietan, tabernetan... Emakumeok egunero jasan behar izaten dugu indarkeria matxista, azaleratzeko modu ezberdinak dituen arren; gizarte patriarkal eta sexista baten ondorio da, gizarte egiturazko arazo bat. Bai, noski, azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Eguna, pasa da, eta? Horregatik ahaztu behar al dugu emakumeenganako indarkeria gure egunerokoan dagoela?

Isilarazi nahi duten errealitatea da hau; baina, jakin eta ezagutzera eman behar den errealitatea izanik, ez dute emakumeon hitza isilaraztea lortuko. Emakume batzuei jasan eta isilaraztera behartzen gaituzten bitartean, besteak jazarpen horiek salatu eta hitza jartzen lan egiten dugulako, emakumeon eskubideen alde borrokatzen dugulako.

Ozen entzun dadila, jazarpen sexualik ez! Tortura sexistarik ez! Indarkeria matxistarik ez! Giltzapera ere, emakumeen indarra heldu dadila! Jaso besarkada bero bat, Aniaiz, Eibarko Emakumeen Mahaiko partaideengandik.

***Eibarko Emakumeen Mahaiko partaideak:***
***P.V.A., N.Z.E., A.Z.E., G.R.J. eta L.A.M.***

## *asteko* HEMEROTEKA *esaldiak*

*"Leo Messi gurera etorri zenean orain egiten dituen gauzak egiten zituen; baina, besteen kontra, berak umeekin egiten zituenak orain profesionalekin egiten ditu. Guk lehenengo foballaria bilatzen dugu, gero atleta bihurtzeko; beste batzuk alderantziz egiten dute eta hori askoz zailagoa da. Hemen, hamaika lagunentzako, hamabi baloi ditugu; beste toki batzuetan, hamaika lagun horiek baloi bakarraren inguruan ibiltzen dira korrika eta jauzika"*

(Carles Rexach, foballari-ohia eta Bartzelonaren Eskolakoa)

*"Pilotalekuetan final handi batean ematen den ke kontzentrazioak bikoiztu egiten du diskoteka batean ematen dena. Gainera, pilotalekuaren goiko aldean, harmailetan, cannabis-a agertzen da batez ere; beheko aldean, kantxan, ostera, puruak dira nagusi. Gazteek cannabis-a tabakoarekin nahastuta erretzen dute eta, azkenean, cannabis-a tabako kontsumorako sarbidea bihurtzen da. Cannabis-a erretzeari lagatzen diotenean ere, tabakoa erretzen jarraituko dute."*

(Joseba Zabala, Osasun Publikoko medikua)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

gizarte kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

## autuan

**SAN ANDRES KALEKUEN BAZKARIXA**
Otsaillaren 6xan (domeka) egingo dabe bazkarixa San Andres kalian jaixotakuak. Egunian bertan mezia ospatuko dabe San Andres elizan, kaleko hildakuak goguan eta bazkarixa, barriz, 14.30xetan izango da, Azitain erretegixan. Juan nahi dabenak 30 euro sartu biharko dau, Kutxako 21010090230127237352 kontu korrontian.

**LOPEZ CONFEBASK-EKO BURUEKIN**
Patxi López lehendakarixa Miguel Lazpiur Confebask-eko presidentiarekin bildu zan martitzenian, enpresa-erakundiak zuzendaritza barrixa presentatzeko ekitaldixa ospatu ebala aprobetxauta. Bertan bat egiñ eben Nuria López de Guereñu idazkari barrixak, José Guillermo Zubiak, López lehendakarixak eta baitta Manuel Salinerok be.

# Eibar, zientziaren eta barrikuntzaren hirixa



**ATZO JASO EBAN EIBARREK "ZIENTZIAREN ETA BERRIKUNTZAREN HIRIA" TITULUA**, Madrilgo Zientzia Ikerkuntzarako Kontseilu Gorenarenean (Consejo Superior de Investigaciones Científicas-CSIC dalakuan), Espaiñiako Printzeak buru izan zittuan ekitaldixan. Hiru urterako iraupena dakan izendapena Eibarrek ez ezik Avilés-ek (Asturias), Cerdanyola del Vallès-ek, Manresak, Sant Boi de Llobregat-ek eta Viladecans-ek (Katalunia), Cáceres-ek eta Almendralejok (Badajoz) eta Rivas Vaciamadrid-ek eta Tres Cantos-ek (Madril) eskuratu dabe, 20.001 eta 100.000 biztanle bittarteko herrixen atalian. Herri txikixeri emondako izendapenen artian Ermuak jasotakua aittatu bihar dogu eta 100.001 biztanletik gorakuen atalian, barriz, Donostia. Atzoko ekitaldixan parte hartu eben herri guztiak INNPULSO sarean sartuko dira, udalen arteko alkarlana eta hartuemona sendotzeko asmuarekin. Titulua indarrian egongo dan hiru urtiotan garapenerako alorrian egindako biharra erabakigarrixa izango da izendapena barriztatzia ala ez erabagitzeko orduan.

## Jubilaziñuen gaiñeko tertulixia



**DATORREN ASTERAKO HAINBAT JARDUERA ANTOLATU DITTU IKASTEN ESPERIENTZIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN ALKARTIAK.** Martitzenian, 10.00etatik aurrera bioteknologixia izango da protagonistia Félix Elorzak emongo daben hitzaldixan eta eguenian, barriz, Castor Garatek "Mareas y oleaje. Formación e influjo sobre el medio y las personas" izenburuko hitzaldixa emongo dau. Bixak Armerixa Eskolan izango dira, Ikasle Ohien alkartiaren egoitzan. Eta eguaztenian, barriz, danon ahotan dabillen jubilaziñuaren gaiñeko kafe-tertulixia egingo dabe Deportibuan (Toribio Etxebarria kalian), 11.00etatik aurrera. Ikasten alkartekuak antolatzen dittuen ekitaldi guztiak irekixak dirala gogorarazi nahi detse herrittarreri.











Tren barrixaren maketia ikusi leike karpan.

## Eusko Treneko unidade barrixak Txaltxa Zelaixan

**EUSKO JAURLARITZAK EUSKOTRENEKO TREN BARRIXA EZAGUTZERA EMOTEKO ERAKUSKETA IBILTARIXA** egitten dihardu herririk herri eta ointxe Eibarren dago ikusgai, Txaltxa Zelaixan ipiñi daben 150 metroko karpan. Atzo goizian prentsaren aurrian presentau eben erakusketia 20 egunetan egongo da bisitatzeko moduan: tren barrixaren kotxiaren maketia gordetzen dau karpak, eskala errealian. Holan herrittar guztiak eukiko dabe unidade barrixak eskintzen dittuan abantaillak bertatik bertara ezagutzeko aukeria. Atzoko presentaziñuan, bestiak beste, Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailburuak hartu eban parte. Erakusketia Eibarren amaitzian Gipuzkoa eta Bizkaiko beste herri batzuetara eramango dabe.




Txapelketia Armerixa Eskolako web orrixan jarraittu leike.

## Mekanika txapelketia Armerixa Eskolan

**GAUR ETA BIXAR EUSKADI MAILLAKO TXAPELKETAREN BARRUAN DAGUAN HEZIKETA PROFESIONALEKO** ikasliendako Mekatronika lehiaketa jokatzen dihardue Armerixa Eskolan. Eibarren txapeldun geratzia lortzen daben taldiak Euskadi ordezkatuko dau Espaiñia maillan jokatuko diran txapelketetan eta Londresen urrixaren 5etik 8ra egoteko aukeria be eukiko dau, mundu maillako "WorldSkills" dalakuan. Armerixa Eskolak hartuko dittuan saiuak www.armeriaeskola.com ikastetxiaren webgunian zuzenian jarraitzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak. Egun bixetan 08.00etan hasiko dira lehiaketak.

# auzorik auzo



## San Anton jaixak Azittaiñen

**Bixar goizian ekingo detse San Anton jaixeri Azittaiñ aldian:10.30xetatik aurrera Altzubarren frontoian pelota jaialdixa jokatuko dabe eta ordu berian urtengo dabe mendiko bizikletan trabesia egittera animatzen diranak**, baiña horretxek Azittaingo plazan, eliza parian hasiko dabe ibilbidia, probia amaittuko daben toki berian. Eta hirugarren jarduera bat be ordu berian hasiko da: IV. San Anton xake lehiaketia. Ordubete geruago, barriz, umiendako preparautako jolasen txandia aillegauko da (plazan). Eta goiza martxa betian emon ondoren, 13.30xetan banatuko detsez sarixak txapelduneri. Edozelan be, parte hartzen daben guztiendako zeiñ ikusliendako txorizua eta edarixa duan banatuko dittue Behetarrak jaixen antolatzailliak.
**Domekan** meza berezixa ospatuko dabe eta, bestiak beste bertsuak eta dantzak be tokixa eukiko dabe eukaristian. Eguardi partian Kezka dantza taldekuen eskutik segiduko dau jaixak eta, gaiñera, elizan umiendako oparixak zozketatuko dittue. Txosnia be egongo da martxan, euskal produktuekin eta 13.30xetan San Anton otarren zozketia egingo dabe. Ekitaldixak asteburuan izanda be, berez astelehena da San Anton eguna eta, horregaittik, 19.00etan mezia ospatuko dabe auzoko premiñen eta famelixa guztien alde, urtian hildakuekin modu berezixan akordauta.

## eibar kaleka

**Pagaegi kalia**
Estaziño kalia amaittuta, eskubitara aldapan gora doian kaliari deitzen detsagu Pagaegi edo Pagei. Mandiola auzoko hiru basarriri be emon detse izena (Pagaegi, Pagaegi Abeletxe eta Pagaegi Korta), baiña Pagaegi izeneko ingurua askoz lehenagotik zan ezaguna Eibarren (1498).

**Pegora kopurua: 4**

**Erroldatutakoak: 142**



# Txernobilgo umiak hartzeko famelixa billa

**CHERNOBILEN LAGUNAK ALKARTEKUAK HURRENGO UDAN UKRAINIAKO ADIN TXIKIKUAK ETXIAN HARTZEKO PREST** daguazen abegi famelixa billa dihardue oindiok be eta, horregaittik, famelixeri urtarrillaren amaiera arteko epia emongo detse, interesa izanez gero alkartekuekin kontaktuan ipiñi eta izena emoteko. Gobernuz kanpoko erakundiak 1996az geroztik dihardu 6-18 urte bitarteko ume ukrainiarreri harreria egitteko programarekin biharrian, beti be umiak kutsatutako eremuetatik etaratzia helburu dakela. Udan ekartzen dittuen umiak Txernobilgo zentral nuklearretik 50 kilometrora daguan Ivankiv izeneko inguruan bizi dira eta, urtietako esperientzian oiñarrituta-ko txostenen arabera, Ukrainiatik kanpora, Euskal Herrixan emoten dittuen egunetan umien osasunak nabarmen egitten dau hobera. Gipuzkoako edozein famelixak interesa eukiz gero, alkarteko ardu-radunekin harremanetan ipintzeko aukeria daka www.chernobilenlagunak.com webgunian edo 689 586 277 telefono zenbakira deittuta.


Urtarrillaren amaierara arteko epia dago umiak ekartzeko izena emoteko.

**asteko datua**

**2.082**

biztanle gitxiagorekin ekin detse hamarkadiari Eibarrek eta Ermuak. Biztanle kopuruan emondako jaitsieria %4'5ekua izan da; bestela, Plaentxia kenduta, Debabarrenako beste herri guztietan gora egin dau biztanlerixiak, %6'5 batezbeste.

# Urteko azken txekiak banatuta

**URTIA AMAITZIAREKIN BATERA BANATU ZITTUEN ERREBALGO MERKATUAN EROSKETA-TXARTELAK**, bertan erosketak egiñ ebenen artian zozketia eginda. Azken hilliotako martxiari jarraittuta, 25 euroko balixua daken 24 txeke oparitu zittuen eta, gaiñera, 500 euroko sari berezi bi be emon zittuen maiatzaz geroztik martxan egon dan kanpaiñia agurtzeko. Hilleroko sari berezixa (200 euro) Miren Sojok jaso eban eta 25 euroko txartel bana irabazi eben jarraixan irakorriko dittuzuenak: Jesus Izquierdo, Elena Milikua, Idoia Belar, Mari Asun Garmendia, Elena Zabala, Carmen Hermosilla, Elena del Amo, Miren Ibabe, María Etxeberria, Rosa Aranberri, María Blázquez, Maite Izagirre, Pedro López Aurtenetxe, María Jesús de la Torre, Cristina Zamakola, Mari Karmen Etxeberria, Maite Etxeberria, Nekane Iriondo, Marisa Bildosola, Estela Gutierrez, Jon Unamuno, Tere Hernández, Nerea Muñoa eta Carmen Fariñas. Zorionak daneri!


Irudixan, iaz egindako azken zozketiaren sarixak etaratzen.

**autuan**

**SANJUANETARAKO POSTUAK**

2011ko San Juan jaixetan saltokixak jarri nahi dabenak eskaeriak aurkezteko epia zabalik dago. Interesa dakanak Pegoran aurkeztu biharko dau eskaeria, maiatzaren 12rako.

**BEHEKO TOKIKO OTARRA**

Beheko Tokia jubilauen etxekuen loterixarekin batera otarra zozketatzeko zenbakixak banatu zittuen eta, aditzera emon dabenez, 0781 zenbakixa dakanak jasoko dau sarixa. Irabazliak Beheko Tokiko buleguetara jo biharko dau otarra eruan ahal izateko.

**UDAL AURREKONTUA PLENORA**

Astelehenian, 09.15etan hasiko da udaletxeko pleno aretuan atal bakarra aztergai eukiko daben plenua: hasi barri dogun ekitaldirako aurrekontu orokorra onartzeko proposamena.

# Eibartar bat "El Conquistador" lehiaketan

**ASTEBURUAN HASI BARRI ZAN "EL CONQUISTADOR DEL FIN DEL MUNDO" ETB2-KO LEHIAKETAN** parte hartzen diharduenen artian eibartar bat dago: 21 urteko Maialen Delgado Pila. Gaztia igeriketa-irakaslia eta sokorristia da eta, igerilekuan praktikatzeko kirolak ez eze, beste kirol batzuk be gustatzen jakozela diño. Gustoko dittuan kirolen zerrendan, bestiak beste, foballa eta surfa dagoz. Lehiaketaren aurreko edizïñuetako esperientzia ezagututa, kirolarekiko dakan zaletasuna ondo baiño hobeto etorriko jako eibartarrari. Izan be, ez dira errazak izango Condor taldian lagun dittuan beste neskekin batera gaindittu biharko dittuan oztopo eta trabak.



*Urte barrixarekin batera, tabakuaren kontrako normatiba barrixa jarri dabe indarrian. Keja bat edo beste entzun bada be, emoten dau jendiak, orokorrian behintzat, normaltasunarekin hartu dittuala azken erabagixak. Kalian, baiña, igartzen da jendiak bere ohitturak aldatu dittuanik? Edo hori bez? Izatekotan, nun?*

# Nabari dozu tabakuaren kontrako legiaren eragiña?



### Ander Izagirre
### 36 urte
### soldadoria

Ez naiz juan tabernetara azken egunotan; baiña, esaten dabenez, jendiak errespetatzen dihardu normatibia. Jende asko ikusten da taberna kanpuetan erretzen. Ni ez naiz erretzaillia eta nigan ez daka eragin zuzenik.



### Pilar Aranzibia
### 69 urte
### jubilaua

Tabernetan asko igartzen da jendiak ez dabela erretzen: girua askoz garbixagua dago eta arropetan be usain gitxiago eruaten dozu etxera. Ez dot txarto ikusten tabernetan ez erretzia; gehixenbat jatekua daguanian, garbittasunagaittik.

### Maite Urkiola
### 65 urte
### jubilaua

Taberna kanpuan asko igartzen da jende gehixago daguala. Tabernetan ez erretzia ondo ikusten badot be, ulertzen dot erretzailliak be beren eskubidiak dittuela eta komenigarrixa izan leike lekuak izatia eurondako be.



### Jose Aranberri
### 66 urte
### jubilaua

Asko igartzen da tabernetan, usain gitxiago eruaten dogu arropetan. Jatetxiendako kaltegarrixa izango dala pentsatzen dot: sobremesia motzagua… Hain kaltegarrixa bada, hobe debekatzia eta kitto!





*Gabonek aldizkariaren egutegian izan duten eragina bitarte, egun batzuk aurretik egitekoa zen elkarrizketa hau astelehenean, ETA-k bere adierazpena zabaldu zuen egun berean egitea egokitu zitzaigun. Erakunde armatuak "nazioarteko komunitateak egiaztatu ahal izango duen su-eten iraunkor eta orokorra" adierazi eta oraindik lehenengo erreakzioak entzun edo irakurtzeko astirik hartu barik irailaren 25eko datarekin kaleratutako "Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa", kalean Gernikako akordioa modura ezagutzen dugunaren gainean berbetan jardun zuten elkarrizketatu biek.*



## JOSU CRISTOBAL / MARIANO LUKE

Gernikako Akordioaren aldeko Eibarko taldeko kideak:

# "Akordioak gizarte osoak sinatuko duenaren oinarria izan nahi du"

**- Zer da Gernikako akordioa? Nola sortu zen?**

Akordioa berez maila nazionalean landu eta aurkeztu zuten. Gero eta nabariagoa da Euskal Herrian daukagun eskenatoki demokratiko baten premia, zeinak gatazka politiko-armatua behin betiko gainditu ahal izateko normalizazio politikoari bidea emango dio. Testuinguru horretan bada denbora bat ezker abertzaleak eta Eusko Alkartasunak hori lortzeko norabidean elkarrekin lan egiten hasi zirela eta lan horren lehenengo fruitu edo emaitza 2010eko ekainean ezagutzera eman zen "Lortu arte" akordio estrategikoa izan zen. Horren haritik eta eskenatoki demokratikoa ahalbidetuko luketen gutxiengo demokratikoak zehazteko asmoz sortu da "Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa" edo "Gernikako akordioa".

**- Zertan zabiltzate Gernikako Akordioaren aldeko Eibarko taldeko kideak?**

Nazional mailan sortutako hori gizarteratzeko, ahalik eta herritar gehienei ezagutzera eman ahal izateko, herri bakoitzean horretan jarduteko lantaldeak eratzea erabaki zen eta horrela hasi ginen gure artean norabide horretan urratsak ematen. Eibarren akordioaren sinatzaileen taldea honezgero eratuta dago eta akordioa bera sozializatzeko beharrean ere hasita gaude. Orain arte akordioa sinatu dugunak, besteak beste, Eusko Alkartasuna, Alternatiba, ezker abertzalea, Gazte Abertzaleak, Gazte Independentistak, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, EHNE, Etxerat, Herria 2000 Eliza, LAB eta Ikasle Abertzaleak dira eta San Andres jaietan akordioa euskaraz, gazteleraz eta frantsesez jasotzen duen liburuxka banatzen ibili ginen. Orain arte egin ditugun bilerak barne antolaketarako izan dira gehienbat, baina atxikimenduak batzeari ekingo diogu berehala eta, jarraian otsaila hasieran edo aurkezpen publikoa egitea daukagu aurreikusita.

**- Zer dio akordioak? Zeintzuk dira azpimarratzeko moduko puntuak?**

Akordioaren helburu nagusiak, gatazka politikoa konpontzeko bidean pauso garrantzitsu bat ematea, aukera politiko guztien jarduerarako gutxieneko baldintza demokratikoak ezartzea eta euskal herritar guztientzat eskubide guztiak aitortu eta errespetatzea dira. Puntu guztiak irakurrita, edozeinek akordioarekin bat ez egiteko arrazoirik ez dagoela uste dugu.

**- Nola hartu duzue ETA-k gaur bertan zabaldu duen adierazpen edo komunikatua?**

Oso pozik, azken batean esku artean darabilgun idatziarekin bat dator erabat. Edozein modutan ere, gatazka konponduko bada urratsak alde bietan eman beharko dira. Pentsatzen dugu gatazka konpontzeko bidearen oinarria Gernikako akordio hau dela. Eta hau ezin daiteke izan bakarrik alderdi politikoen esku dagoen zerbait, hasieran alderdien pisua haundia izan arren gizartearen gehiengoak onartzea beharrezkoa da, akordioak gizarte osoak sinatuko duenaren oinarria izan nahi du.

### HILAREN 22-AN KURSAALEAN EKITALDI NAZIONALA DEITU DUTE

*Gernikako Akordioa sinatu duten eragileek urtarrilaren 22an Donostiako Kursaalean ekitaldi nazionala egingo dutela adierazi dute aste honetan bertan. ETAren agiria aurrerapausutzat hartu dute eta, orain, beste pauso batzuk emateko sasoian gaudela uste dute, Gernikako Akordioak jasotakoa bete arte. Horren berri emateko egindako agerraldian irakurritako oharrean, bestalde, "Gernikako Akordioaren eskaerei erantzuteko" eta bere politika aldatzeko eskatu zioten Espainiako gobernuari. Akordioarekin bat egin dutenek beharrean jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten eta oraindik Akordioa sinatu ez dutenei sinatzeko gonbidapena egiteko aprobetxatu zuten agerraldia.*

# Gaur, 22.30etan, DANBAKAKO FINALA Estiloari fideltasuna eta jarrera

Lord Witch, Xarma eta Desprezio iritsi dira laugarren edizio honetako finalera. Beti bezala, Elgetako Espaloian izango da finala, 22:30ean hasita. Hiru taldeek euren emanaldia egin ondoren **Atom Rhumba**k kontzertua eskainiko du. Danbakako finaleko talde gonbidatua izango dira bilbotarrak. Rock-and-roll taldeak Gargantuan Melee azken lana zuzenean aurkeztuko du Espaloian; euren euskarazko lehen abestia jasotzen du lanak: Istingako mutikoa.


LORD WITCH


XARMA


DESPREZIO


ATOM RHUMBA

**Finaleko taldeak**

Estiloari fideltasunak eta jarrerak eroan ditu hiru taldeak finalera. Lord Witch bergararren gainean epaimahaiak ondokoa dio: "Tauларatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira". Xarma ondarrutarren gainean "mezua" daukatela dio epaimahaiak: "Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariekin", gaineratu dute. "Bada ordua XXI. mendean Do It Yourself edo Egizu zuk zeuk errebindikatzeko. Naturaltasun handia dute eta koherenteak dira", dio epaimahaiak Soraluze eta Bergarako Desprezio taldeaz.

**Sariak**

Talde irabazleak diskoa grabatuko du Shot estudioan. Kutxak babestutako saria izango da. Debagoieneko talde onenak, ostera, MUk babestuta, bideoklipa grabatuko du. Gainera, ikusleen artean Laino skate parkeak emandako skate materiala eta urtebeteko sarrera doan zozketatuko dituzte. Sarrerak salgai daude 5 eurotan (Gaztekutxarekin, 3 euro).





# Eibarko XVI. KIROL SARIAK

**2010-XII-31**

Eibarko Kirol Sarietako XVI. edizioaren ekitaldiaren barruan, Euskara Saria jaso zuen Antxon Aldalurrek. Ekitaldira joan aurretik, urterokoari jarraituz, Aitzgorri puntan izan zen; eta bidean tartea hartu zuen jarraian doan bertso hau egiteko. Bere ahotik entzundakoak bikain adierazten du ekitaldi horren esanahia:

***Gogoratzen naiz hainbat atletez,***
***raketista izan ziranaz,***
***gogoratzen naiz futbolariez,***
***eta mendizale zaharraz.***
***Hemen kirola egiten dugu,***
***nahiz egunez edo gauaz,***
***esku pilotan, antxitxiketan,***
***igerian edo palaz.***
***Joko garbia bultza dezagun,***
***daukagun dena emanaz;***
***osasunaren alde gabiltza,***
***ahaleginaren indarraz.***
***Ohartarazi nahi nuke orain***
***gure hizkuntzaren beharraz,***
***kirola egiten segi dezagun***
***ta egin dezagun euskaraz.***



Sari berezia:
INMA URKIOLA.



Euskera saria:
ANTTON ALDALUR.



Areto-foballa:
AITOR PEREZ.



Arku tiraketa:
ALEXANDER MARTIN.



Atletismoa:
JUAN JOSE MALVAR.



Automobilismoa:
JULIA AGIRRE.



Errugbia:
ALFREDO COBO.



Eskia:
ANA MALLAGARAY.



Eskubaloia:
J. A. BARRUETABEÑA.



Foballa:
ALEX ALBISTEGI.



Herri kirolak:
AGURTZANE ETXANIZ.



Hiru txirlo:
JOSE Mª LARREATEGI.





Igeriketa:
NEREA ZIARAN.



Judoa:
JULEN RAMON.



Karatea:
IRATXE BRAVO.



Mendia:
FERNENDO ERREKALDE.



Motoziklismoa:
MAYER OUTEIRIÑO.



Pilota:
ERIC LANTZ.



Saskibaloia:
EDUARDO AZPIAZU.



Squash:
JON ARANA.



Tiro olinpikoa:
JAVIER IRCIO.



Triatloia:
ANDONI LOPEZ.



Txirrindularitza:
ANE ZIARAN.



Waterpoloa:
IÑIGO UNZETA.



Wu-shu:
MIREN VIDAL.



GIMNASIA ERRITMIKOA:
Ipuruako Infantil mailako taldea: Noelia, Maria F., Irati, Cristina, Ane eta Maria E.



Xakea:
MIKEL BAENA.

**EIBAR FOBALL TALDEA.** Eibarrek inguruko talde askorekin lotu ditu akordioak, tartean Berriz, Abadiño, Arrasate, Urki eta Eibartarrak-ekin. Mandiolak Viaderoren tokia hartu zuen talde nagusia entrenatzeko igoerako promozioa jokatu baino aste batzuk lehenago. Hainbat jokalarik Euskadiko selekzioarekin jardun zuten: 18 urtetik azpiko 4, 16tik azpiko lau eta 15etik azpiko hiru. Nesken talde nagusia indartu egin da Superligan jarraitu ahal izateko. Kadeteen Ohorezko mailako taldeak maila galdu zuen. Jokalari-ohien talde berriak hainbat torneotan hartu du parte. **FOBALLA.-** Urkik eta Eibartarrak-ek euren egiturekin jarraitzen dute, herriko harrobia zaintzen. Erregional mailan, talde bi horiekin batera, Gazteak-ek ere jokatzen du. Jon Errasti jubenilak beste denboraldi birako sinatu zuen Realarekin eta Iñigo Ruiz Galarretaren progresioak Europako txapelketara joateko ateetan laga zuen. **ARETO-FOBALLA.-** Asador Azitain jubenil mailako taldeak ezin izan zuen mailaz igo, finalerdietan galdu eta gero. Debabarrenak bere egitura berritu du denboraldi berrirako. Foball-7ko torneoa La Naranja Mekanikarentzako izan zen. **FOBALL-ZALETUA.-** JoserAutos izan da talde onena, azken denboraldiko Liga eta Kopa bereganatuz. 14 taldek hartzen dute parte Kiroljokoa enpresak babesten duen txapelketan.



Eibar FT-ko talde nagusiak mailaz igotzea du helburutzat aurtengo denboraldian.



Superliga mailari eusteko, Eibarrek indartu egin du emakumezkoen lehen taldea.



Manix, berriro bueltan.



Altuna, goleatzaile nagusia.



JoserAutos foball-zaletuko talde onena izan da, Liga eta Kopa bereganatuz.



Urkiko taldeen artean, neskenak dira lorpen gehienak eskuratzen dituztenak.



Erregional mailako Eibartarrak-ek galdutako maila berreskuratzeko asmoa du.



Areto-foballeko Asador Azitaingokoei azken urratsa falta izan zitzaien mailaz igotzeko.



Gazteak-ek onenekin amaitu du lehenengo fasea, horrela jarraitzea zaila izango badu ere.



Arratek Egiako torneoa bereganatu zuen, Leongo Ademar-en eta Amaya San Antonioren aurrean.



Errugbiko senior taldekoak maila berreskuratzen ahaleginduko dira aurten.

**ESKUBALOIA.-** Asobal Ligako taldeak larri, baina eutsi egin zion mailari; hala ere, arazo ekonomikoek larriagotu egin dute taldearen egoera azken aldian. Bestalde, Euskal Kopa irabazteaz gain, Egiako torneoa ere bereganatu zuen Egian. Kadete eta jubenil mailako taldeei Euskal Ligek ihes egin zieten azken unean, 2. postuan sailkatuz; dena dela, Aristi Memoriala bereganatu zuten. Euskadiko selekzioarekin jokatu dute taldeko hamaika jokalarik. **ERRUGBIA.-** Senior mailako taldeak zorterik gabeko denboraldia izan zuen, azkenean maila galtzera bideratu zuena: promozioan, Málaga gainditu eta gero, ezin izan zuten Arquitectura gainditu. Promozio lanean bikain jardun dute eta, gaur egun, infantil mailako taldeak hainbat aurkari egurtu ditu. Nesken taldea ere bere tokia hartzen doa eta azken emaitzak itxaropentsu izateko motiborik ematen dute; selekziora deitu dituzte hiru jokalari. **SASKIBALOIA.-** Ruibalek 2. postuan amaitu zuen azken denboraldiko 2. fasea, baina ordutik hona maila jaitsi du eta jaitsierari egin beharko dio aurre. Katu-Kalek ere ez du garaipen askorik eskuratu azken aldian eta asko hobetu beharko du bere jokoa sailkapenean gora egiteko. Ruibalek bereganatu zuen euren artean eta beteranoekin jokatutako Eibarko Torneoa. Nesken taldea ateratzeko asmoa kaleratu da.



Katu-Kalek eta Ruibalek euren arteko partiduarekin agurtu zuten denboraldia.



Galvánek puntu asko lortu ditu.



Szabo, harrobitik lehen taldera.



Arrateko talde guztietako onenek euren saria jaso zuten agurreko bazkariaren egunean.



Ruibalen talde berriak ez du zorte handirik izan orain arte aurtengo denboraldian.



Eibar Hierros Anetxek asko zaintzen du harrobia gerora begira.



Nesken taldeak asko egin du aurrera eta hiru jokalari selekziotik deitu dituzte.

**IGERIKETA.-** Hainbat igerilarik maila bikainean jardun dute: horrela, Markel Alberdik Espainiako txapela jantzi zuen hiru probetan eta Nora Varelak Espainiako hamar onenen artean sartzea lortu zuen, Holandan jokatutako munduko txapelketetan Ander Romaratek 6. postua eskuratzen zuen bitartean. Gipuzkoako txapelketetan, Nekane Tejedorrek marka berriak ezarri ditu eta eskola mailakoek bikain jardun dute. **WATERPOLOA.-** Davide Cerchi entrenatzaile berriak taldea goitik behera berrindartu du eta gaztetxoenei aukera berriak eskaini die: senior taldearekin batera, kadeteetan eta infantiletan talde bana daude, emakumeenarekin batera. Hiru jokalarik Euskadiko selekzioarekin debutatu dute. **URPEKOAK.-** Deportiboko taldeak egiten diharduen lanarekin batera, Asier Erasok apnea txapelketetan jarraitzen du parte hartzen, maila onean gainera.


Davide Cerchik guztiz eraldatu du waterpoloaren egitura eta talde berriak sortu ditu.


Markel Alberdi 50 eta 100 metro libreetan nagusitu zen Espainiako txapelketan.




Apnea. / Ander Romarate. / Igor Isasi, arraunean, Zarautzekin.


Sabadell izan zen nagusi Mutrikun jokatutako waterpolo txapelketan.


Waterpolo modalitatean emakumezkoen taldea ere osatu dute aurten.


Igerilari gazteenek ere bikain jardun zuten Gipuzkoako Eskolarteko txapelketetan.

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

**MENDIA.-** Klub Deportiboko mendi batzordekoek urteroko irteeren egutegiarekin jarraitu dute eta gaztetxoenekin egindako irteerak berrindartu. Horiekin batera, aipatzekoak dira Marimendi emakumeen taldeak (tartean, Mertxe Agirre eta Esther Bilbatua eibartarrak) Andeetan egindako 6.000 metroko hiru gainak eta Fernando Errekaldek hilabete eta erdian Pirinioetako 3.000ko guztiak egin izanak. **ESKIA.-** Deporreko batzordeak, ohiko irteerez gain, ahalegin berezia egin du, hainbat eskiatzaile berri taldean sartuz. Ikastaroak ere bat baino gehiago izan dira Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatutakoak. **ESKALADA.-** Patxi Usobiagak lesioarekin hasi zuen denboraldia eta, operatu ondoren, maila onean jardun arren -Munduko Kopako liderra ere izan zen-, azkenean ezin izan du iazkoa errepikatu eta Europako txapelketan 6. postuan sailkatu zen.



Somporteko liga eta Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten Deportiboko eskiatzaileek.



Esther Bilbatua aeta Mertxe Agirre izan ziren Marimendik Andeetan egindako gainetan.



Finalista Egunean denboraldian zehar egindako mendien saria jasotzen dute.





Patxi Usobiagak goi mailan jarraitu du. / Fernando Errekaldek Pirinioetako 3.000koak egin ditu.



Denboraldiko sei-zazpi irteera egiten dituzte Deportiboko mendi batzordekoek.



Midi D'Ossau eta Peña Telerara joandako mendizale taldea.

# PILAR URUÑUELA ALBA

– **I. URTEURRENA**: *2010/1/10* –

*URAK DAKARRENA URAK DAROA*
*ZUK EMANDAKOA GUREKIN GERATZEN DA*

*Zure lagunek ez zaituzte ahazten:*
*Dori, Marisol, Maria Luisa eta Juli*



**TXIRRINDULARITZA.-** Eibarko Txirrindularitza Elkarteak ohiko egutegiko probak antolatu zituen, honako emaitzekin: jubeniletako Udaberri, Sergio Rodríguezentzat; kadeteetako Abascal eta Otxoa, Peio Olabarriarentzat; juniorretako San Juan Saria, Loic Chetoutentzat; eta afizionatuentzako Valenciaga, Victor Cabedorentzat. Horrez gain, Euskal Herriko Itzuliaren etapa bat Arraten amaitu zen, Samuel Sánchezen garaipenarekin, eta hurrengo eguneko etapa Eibartik irten zen. Debabarrenak talde indartsua osatu du, batez ere, emakumeei dagokienez, eta Leire Olabarria handiak garaipen gehiago lortzeko aukerak izango ditu. Katearen Egunean aurkeztu zituzten taldeak. Pereiro triatloiko munduko txapelketan izan zen; Santestebanek azkenean ezin izan zuen Australiakoan parte hartu. II. BTT martxa antolatu zen eskualdeko parte-hartzaileentzat.



Samuel Sánchez onena izan zen Arraten amaitu zen Euskal Herriko Itzuliaren etapan.



Valenciaga Memorial ospetsuak Victor Cabedon izan zuen aurtengo garailea.







Udaberri Saria. / Leire Olabarria. / Debabarrenak harrobi lana egiten du.



BTT martxaren bigarren edizioa antolatu zen eskualde osorako Elgoibarko lurretan.



Debabarrena nesken talde indartsua osatu da denboraldi berrirako.



Ampo taldeak sari guztiak bereganatu zituen Abascal eta Otxoa sarietan.

KROS SPORTS
EKIPAMENDUAK
KIROL-MATERIALA
IGERIKETA
PSIKOMOTRIZITATEA
ALTERNATIBOAK
Julian Etxeberria, 2-4
(545 postakutxatila)
Tel. 943701401 Faxa 943702335

Gasoleo banaketa
Baita kalefakzio eta ur berogailuentzat ere
estación de servicio kantoi eibar
GASOLINDEGIA
Otaola etorb., 13 - Bis
Tel. 943 207374 Fax. 943 207130

**ATLETISMOA.-** Herriko atletek hainbat domina irabazi zituzten Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan: horrela, Tomas Vouillozek pertigarekin urrezkoa bereganatu zuen eta txapela jantzi zuten ere Albistegik, Ourmakaevak eta Aranburuzabalak, azken bi horiek Deportibokoak ez badira ere. Malvar beteranoak Espainiako txapela jantzi zuen krosean eta 3.a izan zen maratoi erdian. Asier Cuevasek ere marka berria ezarri zuen San Migueleko igoeran eta podiumera igo zen Donostiako maratoian. Proba horretan, Eibarko 21 atleta izan ziren eta, aste batzuk lehenago jokatu zen maratoi erdian, gure herriko 109 atleta izan ziren parte hartzen. **TRIATLOIA.-** Andoni Lópezek kadete mailako esprint modalitateko Euskadiko txapelketa irabazi zuen; horrez gain, Ane Ziaran Gipuzkoako txapeldun izan zen juniorretan eta 3.a estatuko Unibertsitarioan.


Walter Becerrak irabazitako Simon Aldazabal proban 47 atletak hartu zuten parte.


Bolunburu Memorialean Julen Teránek irabazi zuen gazteenendako proba.


Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak Lekeition jokatutako proban.




Transgrancanarian. / Cuevas Donostiako podiumean. / Narbaiza garaile San Adrianen.



Juan Jose Malvar beteranoak denboraldi bikaina egin du, garaipen askorekin.


Donostiako maratoi erdian parte hartu zuen eibartarren taldea.


Olabarria AUTOBUSAK
BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK
Besaide, 11. ELORRIO
Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / Faxa. 94 - 623 16 47

# 2010/2011

## EIBAR FUTBOL TALDEA

# Aupa Eibar!



**2. B Mailako taldea**



**3. Mailako taldea**



**Jubeniletako Ohorezko Ligako Urko**



**Kadeteetako 1. Mailakoa**



**Infantiletako Ohorezko Mailakoa**




Superligako taldea




Erregional Mailako taldea



Jubenil Mailako taldea



Kadete Mailako taldea



Jubeniletako Euskal Ligakoa



Kadeteetako Euskal Ligakoa



Infantil Txikiko Teknifikazio taldea



Alebinetako taldea

**HERRI KIROLAK.-** Sanjuanetako Euskal Jaialdiarekin batera, Sanisidroetako eta Sanandresetako aizkora torneoek gero eta indar handiagoa dute eta, bietan, Bihurri izan zen garaile, Arraten Larretxearekin eta Untzagan Aresorekin. **HIRU TXIRLO.-** Asola-Berriko ordezkariek ez dute denboraldi onena izan aurten eta, ohorezko postuetan izan arren, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak beste bolatokietara joan dira. **EHIZA.-** Eskualdeko txapelketan, Iñigo Gisasola izan zen onena eta bere aita Jose Luisek beteranoena irabazi zuen. **TIROA.-** Pitxoi tiraldi jardunaldi mordoa izan dira Arrateko tiro-pitxoian. Field Target Liga Luis Hoyosentzat izan zen. Tiro neumatikoan, Dinbi-Danbak San Juan eta San Andres torneoak antolatu ditu. **ARTZAIN-TXAKURRAK.-** Jose Antonio Arrillagak Euskadiko txapelketa bereganatu zuen beste behin arraza libreko txakurretan.



Bihurri protagonista izan da Eibarko herri-kirol probetan. Dioni Kortina ere bueltatu da.



Eskualdeko lehen postuak bereganatu zituzten Diana elkartekoek Zambranan.







Iñaki Artetxe goi mailan. / Asola-Berriko ordezkariak. / Herri-kirolak Azitaingo jaietan.



Tiro olinpikoko San Juan eta San Andres torneoak jokatu ziren Hezkuntza Esparruan.



Jose Antonio Arrillaga onena izan zen beste behin arraza libreko artzain-txakurren txapelketan.



Agerreazpik galdu egin zuen Orioko Olidenekin Aiako probalekuan jokatutako apostua.

GIMNASIO JUANITO MASAJES
Kirol masajea
eta terapeutikoa
Gimnasia aparatoekin
Zuzendutako gimnasia
Ego Gain, 11 ac.
943 70 05 14
943 20 83 80

FOTODEPILAZIO ESKAINTZA
Orbea kiroldegia
Urkizu, z/g
orbea estetika
ZONALDE HANDIAK 30€
15€ ZONALDE TXIKIAK
943-030015 / 638-201365
– Masajeak
– Aurpegi tratamenduak
– Gorputz tratamenduak
– Munduko errituak
– Depilazioak
– Manikurak
– Pedikurak

**PELOTA.-** Urtero lez, Astelenak pelota profesionaleko jaialdi mordoa jaso ditu. Klub Deportiboko ordezkarien artean, Bengoetxeak Lezamako torneoa bereganatu zuen eta Narbaiza gazteak lauaren barruko txapelketa bi. Antimo Atxurra Peña Pelotazaleko presidente-ohia hil zen. **SQUASH.-** Euskadiko txapela jantzi zuen Deportiboko taldeak eta Ferreirok Euskal Ligako txapelketa bereganatu zuen Sestaon. Bestalde, Patronatoak padel torneoarekin batera, aurten tenisekoa ere prestatu du. Argüesok irabazi zuen Elgoibarren 40x15 tenis torneoa. **XAKEA.-** Deportiboko A taldeak Euskal Ligan jarraitzea lortu zuen, bigarren taldea 1. mailatik jaitsi zen bitartean. Julen Garro Euskadiko azpitxapelduna izan zen jubeniletan eta Ander Magunazelaiak probintziako txapela jantzi zuen alebinetan. Kruzeta Memorialean eibartarrak bigarren sailkatu ziren.



Klub Deportiboko pilotariak Arrateko frontoi estuan, bertako jaietan.



Squash modalitateko Eibarko Openak 52 parte-hartzaile izan zituen.



Klub Deportiboko xakelarien ordezkaritza Italian izan zen abuztuan bertako torneo batean.








Xake partidak. / Argüeso eibartarrak irabazi zuen 40x15 torneoa. / Irujo eta Barriola.



Astelena frontoia profesional mailako partidu gehien jaso duena izan da azken denboraldian.



Herriko squash-lariek Euskadiko txapella eskuratu zuten taldekako modalitatean.

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzaile, 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

**JUDOA.-** Nekane Muguruza infantil mailako Espainiako txapelduna izan da eta Montielek eta Villalbak jiu-jitsuko estatuko txapelketan hartu zuten parte. Bestalde, Julio Gallegok eta Manu Agirrek gerriko beltza eskuratu zuten emakumearen defentsa pertsonalaren arloan. Jon Alzagak urrea eskuratu zuen Logroñon. **KARATEA.-** Tamara Amador Jator taldeko ordezkariak maila bikainean jardun du eta Urki-Amañako Jesus Castillok Gipuzkoa txapela jantzi zuen seniorretan. **WU-SHU.-** Ttatt Gimnasioko ordezkariek lan bikaina egin zuten bai Iruñean eta baita Madrilen ere: Miren Vidalek eta Eneko Baz-ek urrezkoa eskuratu zuten eta Eric Lópezek zilarrezkoa. **BOXEOA.-** Ohiko boxeo eta sanda borrokaldiak ikusi ahal izan ziren Astelenan Sanjuanetan. Imanol Ortíz de Zarate boxeolari-ohia (Ziriako herri-kiroletako aurkezlearen anaia) hil egin zen.





Karateko kata eta kumite probak. / Jesus Castillo sariekin. / Tamara Amador.




Judokak, Juan Ramon Del Barrio eta Manu Agirrerekin. / Villalba, Agirre eta Montiel.



Kalamuako judokek domina ugari pilatu dituzte parte hartu dituzten lehiaketetan.



Eric López, Miren Vidal eta Eneko Baz, wu-shu modalitateko estilo handiko hirukotea.



Nekane Muguruza judokak bereganatu zuen jiu-jitsuko Espainiako txapela.



Astelenako boxeo jaialdian, sanda modalitateko borrokak ere ikusi ahal izan ziren.

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1
etxola
JATETXEA
Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Lauholan
SOLUCIONES INFORMATICAS
Tel. 943 120 350 Faxa. 943 127 087
Urkizu Pasealekua, 10 (20600 EIBAR)

**GIMNASIA ERRITMIKOA.-** Ipurua Gimnasia Erritmikoko seniorrek denboraldi bikaina borobildu dute eta Espainiako azpitxapeldun geratu; emaitza horrekin elite mailara igo dute. Horrez gain, Euskalgym-a irabazi zuten. Eta lau ordezkari izan ziren Espainiako txapelketan. Infantil mailako taldeak Gipuzkoako titulua lortu zuen. **AUTOMOBILISMOA.-** Arrateko Auto Igoeran, Jose Antonio Aznar izan zen garaile; probak oso puntuazio altua jaso du eta Portugalgo txapelketarako baliagarria izan daiteke. Julia Agirre azkarrena izan zen karting-etan Gipuzkoako Kopan eta Holke-Beorlegi bikoteak Durangoko Klasikoa bereganatu zuen. **MOTOZIKLISMOA.-** Mayer Outeiriñogoitiak enduro eta kros-country txapelketetan hartu du parte. **GOLF.-** Castañón eibartarrak bereganatu zuen San Prudentzio txapelketa, Javier San Andres lagun zuela.


Eibartarrak nagusi izan ziren Landakon eta La Casillan jokatutako Euskalgym-ean.


Julia Agirrek ikaragarri egin du gora eta onena izan zen bere mailan Olaberriako proban.


Jose Antonio Aznar-ek irabazi zuen uztailean jokatutako Arrateko Auto Igoera.




Holke-Beorlegi, onenak Durangon. / Mayer Outeiriño, enduron. / Ipuruako gimnastak.


Aitor Barruetak debuta egin du erresistentzia probetako Espainiako txapelketan.


Arkaitz Ruiz azpitxapelduna izan da automodelismoko 1/8ko Euskadiko txapelketan.



E S K A B A Z I O A K
BERGARETXE S.L.
leherketak, eraispenak, eskabazioak eta garraioak
Arragueta, 2 - Bis B, behea B
Telefonoa: 943 70 19 54 Faxa: 943 53 16 91



## Waterpoloan Donostian garaile

**WATERPOLOKO INFANTIL MAILAKO MIKEL RECIOK** progresio bikaina darama eta Euskadiko selekzioarekin jokatu du Gabonetako torneoan: 22-3 Aragoiri irabazi ondoren, Nafarroarekin 6-7 galdu zuten euskaldunek. Reciok lau gol sartu zituen bi partiduetan, euretako bat piszina erditik.

Bestalde, Urbat-Urkotronik senior taldeak 14-8 irabazi zion Iruña B-ri Gipuzkoako Open Ligan eta sailkapeneko 2. postuan jarraitzen dute, lehenengoarekin berdinduta. Bestalde, Donostian jokatutako alebin eta infantil mailako torneoan, eibartarrak izan ziren nagusi, Waterpolo Donostiari 8-0, Gipuzkoari 6-2 eta Oiassori 10-1 irabazi ondoren.



## Debabarrenaren garaipena

**ONDO HASI DU URTEA ARETO-FOBALLEKO EIBARKO TALDEAK**, Laskorain taldeari 11-4 irabaziz. Emaitza horrekin itxaropen gehiago ditu taldeak Lasarten Ventanas Isu mailako liderraren aurka jokatu beharreko partidurako. Hala ere, zaila izango da, orain arte hamabi garaipen eta berdinketa bi lortu baititu Lasarteko taldeak, porrotik gabe.

## Eibarko lau atleta Kirolprobak Sariaren aurreneko postuetan

**FERMIN SEBASTIANEK 25. POSTUAN AMAITU DU EL DIARIO VASCO-K BABESTUTAKO** Kirolprobak Saria. Eibartarrak 659 puntu bereganatu ditu eta bere atzetik geratu dira Ernesto Etxabe (474 puntu eta 72. postuan), Aitziber Urkiola (439 eta 83. postuan) eta Jon Etxabe (207 eta 236. postuan). Sailkapen horretan Gipuzkoan jokatutako hainbat probatako emaitzak hartzen dira kontutan.

## Arrateko kadete bi selekzioarekin



**AITOR OREGI ETA MIKEL GERRA DIRA** azken astean kadete mailako Euskadiko selekzioarekin jokatu duten Arrateko eskubaloi jokalariak. Partiduak selekzio autonomikoen arteko Espainiako txapelketakoak izan dira.



## Eibartarrak nagusi Villanuako San Silbestren

**MALEN AMUATEGI ETA ELENE GISASOLA EIBARTARRAK** onenak izan ziren Villanuan jokatutako Sal Silbestre proban. Euren mailako 44 nesken artean, lehenengoak izan ziren helmugaratzen eta, koparik jaso ez arren, izan zuten oparirik. 3.000 metroko proban 600 bat lagunek hartzen dute parte urtero, batzuk mozorrotuta joateko aukeraz baliatuz.

## Hiru talde berdinduta foball-zaletuaren lidergoan

**JOSERAUTO, DURANGO ETA TEKNOGRAFIK DIRA HIRURAK.** 26 puntu dituzte eta Lanús Ez Dok laura dago sailkapenean, Azkena Kalton seira, eta Txoko, Alkideba eta Esmorga zazpira. Bihar neurketa garrantzitsuak izango dira Unben: JoserAuto eta Durangoren artekoa 09.00etan eta Azkena Kalton eta Teknografik-en artekoa 12.00etan.

## Liga hasiera xakean



**3-1 IRABAZIZ HASI ZUEN EUSKAL LIGAKO TALDEAK** liga, Gasteizen bertako Calasanz taldea garaituz. Bihar Donostiako Gros B taldea jasoko dute Deporren, 16.00etan. Bihar hasiko da, bestalde, Gipuzkoako Ligako 2. maila eta hor Deportiboko bigarren taldeak hartuko du parte. Bestalde, Julen Garro Gipuzkoako jubenil mailako azpitxapeldun geratu da Gros Xake Taldearen egoitzan jokatutako txapelketan; Mikel Baena 12.a izan da.



*Astelehenean, San Anton egunean estreinatuko du Jairo Berbel kazetaritza ikasle gazteak Elgoibarko Herriko Antzokian "Irribarreen paradisua" izenburuko dokumentala, 19.00etan. Gazteak Kongon (Afrikan) eman zituen egunetan bertan jasotako irudiekin osatutako lana urtarrilaren 21ean ere erakutsiko dute, 22.15etan. Emanaldi bidetara sartzea musutruk izango da.*

# Afrikatik datorkigu IRRIBARREEN PARADISUA

Kooperante modura bidaiatu zen Jairo Berbel Kongora 2009ko udan, Tomás Medinabeitia apaiz eta misiolari elgoibartarrak han garatzen dihardeun proiektua zuzen-zuzenean ezagutu eta ahal zuen neurrian laguntza emateko asmoarekin. Bidaia benetan garrantzitsua izan zen gaztearentzat eta bere buruan betirako gordeta geldituko diren irudiak ez ezik, argazki kamerarekin hartutako beste irudi mordo bat ekarri zituen bueltan. Eta bere bizipen aberasgarria Kongon egon ez den jendearekin elkarbanatzeko modu paregabea aurkitu zuen, Afrikan hartutako argazkiekin erakusketa antolatuta. Gainera, erakusketa bera berezia izan zen, bere argazkiek laguntzen Gemma Monreal amaren margolanak ipini zituzten eta.

Lehenengo bidaia haren eskutik ailegatu zen hurrengo urtean egin zuen bigarrena. Izan ere, Berbel urte bitan jarraian joan da Kongora, Kansinia ingurura, eta han bizi direnen bizimodua isladatzen duten argazki mordoa hartu ditu kamerarekin. Lehenengo bidaiaren bueltan han ikusitakoa ezagutzera emateko argazki erakusketa erabili zuen moduan, oraingoan pausu bat haratago joan da eta 'Irribarreen paradisua' izenburuko ikus-entzunezkoa sortu du, bere bidaia laburbiltzen duen lana. Berbelek berak azaldutakoaren arabera, *"bertan ikusitakoen kontakizun objektiboa egin beharrean, bakarrik premia-premiazkoarekin bizi direnenekin batera igarotako egunetan sortzen joaten ziren sentipenen eztanda modukoa erakusten du astelehenean erakutsiko dudan lan honek".* Dokumental *"xume eta freskoa"* atera zaiola pentsatzen du eta, denbora asko eskaini behar izan badio ere, azkenean lortu duen emaitzarekin pozik geratu dela dio Berbelek. Dokumentalaren trailer edo aurrerapena Youtuben ikus daiteke eta bertan idatziz jasota dagoenari jarraituta, zoriontsu izateko eta irrifar egiteko ez dela horrenbeste behar erakutsi nahi die ikusleei. Izan ere, Berbelek Afrikara egindako bidaietan ikasi duen irakasgairik garrantzitsuena esaldi horretan laburbilduta dago eta ikasitakoa horrekin konturatu barik bizi direnei erakutsi nahi die, horretarako irudi ezin ederragoak erabilita. Irribarreen paradisua gu guztion eskura.






## Saria eman zion argazkia



Lehenengo bidaiatik bueltan "Afrikar haurtzaroaren ibilbide luzea" izeneko argazkiarekin saria irabazi zuen Jairo Berbel gazteak Giza Eskubideen Fundazioak antolatutako "Todos somos diferentes" (Denok gara ezberdin) argazki, ipuin eta kontaketa laburren lehiaketa, argazkiei eskainitako atalean. Kongora orain urtebete egin zuen bidaian atera zuen Berbelek saritutako argazkia.

# OSASUN

## Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

**miren albistegi sojo**

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

---

*T. Anitua 16, behea*
*Tel. 943 20 73 57*

**AMAÑA**
**HORTZ KLINIKA**

---

**ARAT Hortz Klinika**

*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura*

943 20 18 51

---

**bista eder**

Irribarreak gaztetu egiten gaitu

Inplante eta Hortz-Estetikan aditua

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

---

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

---

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. | Tfnoa: 943 20 72 17

---

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Jesus Mª Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

---

*RPS 04/02*

**IRAZABAL**
clinica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

*A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra* DOKTOREAK

**ZERBITZUAK:** Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

---

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .......... 943 70 23 85

EGUNERO

---

**invisalign**
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia ume eta helduentzat**

**Mª Dolores Olaizola Doktorea**

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

*Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)*
*Telf.: 943 120 200 - 943 425 706*
www.mariadoloresolaizola.com

---

RPS 336/05

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

***Bidebarrieta, 7 - 1. esk.*** ***943-702896***

---

**UNTZAGA**
**hortz-klinika**

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

---

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**

- *Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala*
- *Logopedia*
- *Inkontinentzia urinarioak*
- *Kirol medikuntza*
- *Ama izateko prestakuntza*

Muzategi 2 (EIBAR) — Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) — Tfnoa. 943 74 33 74

---

*Patronato Eibarrés*

**Errehabilitazioa eta Fisioterapia**

*ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea*

**Urkizu 9 - behean**
EGUNERO (08.00 - 19.30)
**Tfnoak. -** *943 12 12 80* **eta** *943 12 03 58*
**Faxa -** *943 12 03 58*
**patronatorehabi@terra.es**

---

## Estetika klinika

**abontza**
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

---

**Hemen zure tokia izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefono zenbakira**

# GIDA

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**
970 Kolegiatu zbkia.
FISIOTERAPIA ZENTRUA
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA**
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

– fisioterapia
– osteopatia
– errehabilitazioa
*Manu Sánchez* FISIOTERAPEUTA
Juan Gisasola, 14
Telefonoa: 943 12 70 78

## Okulistak

Centro de Oftalmología Avanzada
**JOSE ALBERDI**
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Clínica Oftalmológica
**RECALDE**
Oftalmologi Klinika
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**
**PODOLOGOA**
124 kolegiatu zenbakia
HELBIDE BERRIA
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
**943 12 14 93**

Bidebarrieta, 48
**EIBAR**
943 203050
Erdiko kale 54
**ARRASATE**
943, 799746
PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**
Maider
Lopez
Etxeberria
*Arragueta 2 Bis-B, Behea C*
*Tfnoa. 943 82 04 88*
*65 Kolegiatu zbkia.*

**PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO
*Iñaki Rivero Zabaleta*
*Calbeton, 4 - 2.*
*(Untzagako dorrea)*
*Tel. 943 20 86 41*

## Psikologoak

**AROR**
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
**Ana Artamendi** eta **Beatriz Ortueta**
- *Afasiak*
- *Dislexiak*
- *Disfoniak*
- *Hizmoteltasuna*
- *Dislaliak*
- *Eskola arazoak*
- *Degluzio atipikoa*

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA KABINETEA
Arrate Garitaonandia
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
**TRATAMENDUAK**
*Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66*
*a_garitaonandia@terra.es*

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa
*Oscar Mondragon Lili*
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**
– *Mamografiak*
– *Dentsitometriak* (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
– *Hortz-scanner 3D-etan* (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

**TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak**
**TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin**
*Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857*

## laburrak

### MAKROBIOTIKA IKASTAROA

Urtarrilaren 25 eta 27an eta otsailaren 1 eta 3an makrobiotika ikastaroa emango du Simone Begiristainek, 19.00etatik aurrera Portalean (sukaldean). ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ikastaroan izena emateko aukera urtarrilaren 21era arte (edo toki guztiak bete arte) egongo da, ...eta kitto!-n bertan (Urkizu, 11, solairuartea, 943-200918 telefono zenbakia). Ikastaroak 10 euro balio du (...eta kitto!-ko bazkideentzat eta berbalagunentzat doan izango da).

### MARRAZKI LEHIAKETA

Zapatuan, 17.00etatik aurrera, umeendako marrazki lehiaketa egingo dute As Burgas Galiziako Etxean. Gabonen inguruko marrazki-lehiaketan maila bi bereiziko dituzte, adinaren arabera: 6 eta 12 urte bitartekoak eta 10 eta 12 urte bitartekoak. Parte hartu nahi dutenek Galiziako Etxean bertan eman beharko dute izena eta bakoitzak marrazkia egiteko behar dituen margo eta bestelakoak etxetik eraman beharko ditu. Amaitzean askaria emango diete ume guztiei, opari banarekin batera. Nagusienen artean irabazten duenaren marrazkia, berriz, hurrengo Gabonetan postala egiteko erabiliko dute.

### ARTISAU AZOKA: ZOZKETA

Eibart-ek Gabonetan martxan izan zuen azokan zerbait erosi zutenen artean zozketa egin dute eta hauek izan dira irabazleak: asteburu bat nekazal turismoan pasatzeko txartela Rosa Mª Altzerrekarentzat izan da eta azokako produktuekin betetako otarra Marian Villenarentzat. Zorionak!

## Ruben Darío-ri omenaldia Museoan



**EIBARKO ARMAGINTZAREN MUSEOAK LAU URTE BETEKO DITU** eta, horren harira, Rubén Darío Nikaraguako poetari omenaldia eskainiko dio domekan, bere jaiotzaren 144 urteurrena betetzen dela aprobetxatuta. 11.30etatik aurrera, Portaleko bosgarren pisuan dagoen museoan Latinoamerikako dantzak eta gaztelaniaz Modernismo literarioaren sortzailetzat hartzen den poetaren olerkiak tartekatuko dira eta sarrera doan izango da.

Antolatzaileek azaldutakoari jarraituz, olerkiak irakurri eta gero, Lacasiun Eibarko Emakume Latindarren Elkarteak dantza erakustaldia eskainiko du: “Moliendo Café” kolonbiarra, “Guayaquileño de Madera Guerrero” ekuatoriarra eta “La Dama Antoñana” balsa dantzatuko dituzte, azken hori Daríoren “Etcétera, etcétera…” olerkia irakurtzen den aldi berean. Museoko arduradunen berbetan, *“ospakizun honekin Museoak latindar komunitatera gerturatu nahi izan du, eta, aldi berean, Eibarko industriaren garapenerako Amerikarekin izandako merkataritza-harremanen garrantzia gogorarazi”.* Bestalde, bere sorreraren urteurrenaren egunean, urtarrilaren 18an (martitzena), 10.00etatik 13.00etara zabalduko dute museoa eta sarrera doan izango da.

## Ismael Iglesias-en irudiak Portalean



**GAUR 19.00-ETAN INAUGURATUKO DUTE PORTALEAN, ERAKUSKETA ARETOAN**, Ismael Iglesias durangarraren “My way, no way, anyway” izenburuko erakusketa. Artistak 2000 eta 2010 urte bitartean sortutako artelanak biltzen dituen erakusketarekin batera, “Prácticas Bastardas” izenburuko proiektu berriaren aurkezpena egingo dute eta “RGB” eta “Dancing with your eyes” argitalpen berriak ere bertan izango dira. Artista honen koadroen oinarrian argazkiak eta bestelako irudiak daude, baina teknologia berriez baliatuta irudiei margolan abstraktuaren itxura ematen die, oso koadro ikusgarriak osatuta. Erakusketa hilaren 13ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara).

## Eibarko idazleen lan gehiago zintzilikatu ditu sarean Egoibarrak



**EGOIBARRA BATZORDEAK BERE WEBGUNEAN EGITEN DIHARDUEN DIGITALIZAZIO LANAREKIN JARRAITUZ**, Eibarko idazleen eta Eibarri buruzko lan gehiago sareratu ditu: oraingoan beste 168 artikulu berri gehitu dizkio lehendik osatuta zegoen datu-baseari, gehienak Juan San Martin idazlearenak, baina badaude baita Josu Arkotxa, Toribio Etxebarria, Goiria, Lojendio, Ramiro Larrañaga, Galdos, Omaechevarria, A. Tejada eta beste egile batzuenak ere. Berriki gehitutako artikulu horietako gehienak EGAN aldizkarian 1954tik 1965era bitartean eta BRSBAPen 1946tik aurrera argitara emandakoak dira.

## Umieendako ikuskizuna Karrika tabernan

**DOMEKAN, 18.00-ETATIK AURRERA, BISTA EDER KALEKO KARRIKA TABERNAN UMEENTZAKO IKUSKIZUNA** eskainiko dute Pantxika eta Txinparta clown-ek: "Ederra Zalaparta". Antolatzaileen berbetan, *"esperientzia handiko aktore eta clown-ak biak ere, espektakulu ezin dibertigarriago honetan laguntasunari eta festari egiten diote apologia, birziklaiari eta elkarlanari, lotsak gainditzeari eta dibertitzeari".* Ikuskizuneko protagonistek diotenez, *"opariirik onena festa bat"* da eta hori da, hain zuzen, joaten direnei eskainiko dietena. Bestalde, hilero erakusketa bana eskaintzeko asmoari jarraituta, urtarrilaren 26ra arte Sara Peñalba soraluzetarraren "Amerikabegiratzen" izenburuko argazki erakusketa ikusgai izango da. 2010eko urtarrilean Bolivian hartutako irudiak ikus daitezke bertan. Eta urtarrilerako prestatu duten egitaraua biribiltzeko, hilaren 23an Nevermind People jazz laukotearen emanaldia hartuko du tabernak, 19.00etatik aurrera.





Pantxika eta Txinparta clownek "Ederra Zalaparta" eskainiko dute.

## Xaboi-burbuilak protagonista bihar Coliseoan

**PENTACIÓN ESPECTÁCULOS TALDEAREN ESKUTIK TAULARATUKO DA BIHAR "¡UUUIII!" ANTZEZKIZUNA COLISEOAN**, 17.00etatik aurrera (sarrera 5 euro). Luis Beviák sortutako ikuskizuna umeentzat ez ezik nagusientzat ere pentsatutakoa da eta antzezleak Luis Beviá bera eta Morgan Blasco dira. Antzezkizuna taularatzeko orduan, berriz, eszenatokia xaboi-burbuilak sortzeko fabrika bihurtuko dute: mahai baten gainean xaboi pitxerkada bat ipiniko dute, tubo ugari eta burbuilak fabrikatzeko elementu ezberdinekin batera. Unuy eta Dosuy izeneko pertsonaiek "xaboiaren ezkutuko formula" bilatzen dihardute eta, horretan dabiltzala, elixir berezia gordetzen duen laborategiarekin topo egingo dute. Hortik abiatuta xaboi-burbuilak sortu eta sortu emango dute denbora: gardenak, kez betetakoak, lurrunez betetakoak… orotariko burbuilekin beteko dute antzokia.



Centro de fisioterapia
MS
manu Sánchez

KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)

## Break dance ikuskizuna aurkeztuko dute

**GEROZ ETA JARRAITZAILE GEHIAGO DITUEN BREAK DANCE DANTZA IKUSKIZUNA ESKAINIKO DUTE NEREA LODOSAREN IKASLEEK** Coliseoan, hilaren 21ean 20.30etatik aurrera (5 euro). Hip hop kulturaren eskutik sortutako dantza estiloari tartea eskaintzen dihardute Ipurua Dantza Garaikidekoek azken urteotan, baina hau izango da bakarrik break dance-an oinarritutako koreografiekin osatutako ikuskizuna aurkeztuko duten lehenengo aldia. 15 eta 20 urte bitarteko lau ikaslek eskainiko duten emanaldian euretako baten ametsetan oinarritutako istorioa kontatuko dute, horretarako dantzak erabilita. Coliseoan erakutsiko duten ikuskizuna Durangon estreinatu zuten orain dela gutxi eta jendeak oso ondo hartu zuen.



## Zaharberritutako argazkiak Untzagan

**GAUR 20.00-ETAN ZABALDUKO DUTE "OROIPEN ARTEAN-ENTRE RECUERDOS" IZENBURUKO** I. Argazki Zaharberrikuntzaren erakusketa Untzaga Zentro Sozialean (erakusketa aretoan). Otsailaren 6ra arte martxan egongo den erakusketan Einer Rodríguez Ponce Eibarren bizi den peruarraren lanak ikusteko aukera izango dugu: Photoshop eta antzerako baliabideak erabilita eta *"pazientzia handiarekin"* hondatutako argazki zaharrak birrosatzen aditua da bera eta erakusketa martxan ipintzeko orduan Mateo Guilaberten eta Soraya Cid del Riveroren laguntza izan du. Erakusketaren ordutegia hauxe da: astelehenetik barixakura, 19.15etatik 21.15etara eta zapatu, domeka eta jai-egunetan 12.00etatik 14.00etara.




## Kabalgatarekin agurtu ditugu Gabonak

**ERREGE MAGOAK ETXERA BUELTATZEAREKIN BATERA, GABONAK AGURTZEKO ORDUA** ere ailegatu zitzaigun, baina aurretik dantza ikuskizun ederra eskaini zuten Ipurua Kiroldegiko Dantza Garaikide taldeak, Ipurua Gimnasia Erritmiko Taldeak eta Eibarko Balletak Astelena frontoian, hori amaitzean herriko kaleak zeharkatu zituen kabalgataren aurretik.



Kabalgata egin aurretik Errege Magoak Astelena frontoian egin zen ikuskizunean izan ziren. / SILBIA HERNANDFEZ






# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, IRAIA, hillaren 4an zazpi urte bete zenduazelako. Asko maitte zaittugu, printzesa. Muxu haundi bat aitta, ama eta Martxelen partez.



Zorionak, XABIER Berasategi Sologaistua, hillaren 7xan lau urte bete zenduan-eta. Gure Robin-entzat, etxekuen partez.



Zorionak, UNAI, eguaztenian zazpi urte egin zenduan-eta. Osaba eta izebaren partez.



Zorionak, JON, hillaren 7xan bost urte bete zenduazelako. Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, MALEN Acedo, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Aitxitxa, amama eta birramamaren partez.



Zorionak, JULES, urtebete egin dozu-eta! Hain mutil txikixa eta hain bihotz haundixa! Pa!!



Zorionak, IÑIGO eta IKER Jauregibarriari, urtiak bete dozuez -eta. Laztan haundi bana bixeri, etxekuen partez.

## HILDAKOAK

- **Conchi Arostegi Laskurain.** 73 urte. 2010-XII-29.
- **Pepita Etxaniz Larrañaga.** 95 urte. 2011-I-1.
- **Vicente Hernández Soriano.** 76 urte. 2011-I-2.
- **Arrate Gallastegi Aranzabal.** 70 urte. 2011-I-4.
- **Iban Arregi Hernández.** 32 urte. 2011-I-4.
- **Manu Madariaga Ibaibarriaga.** 57 urte. 2011-I-8.
- **Rafael Goenaga Mutiloa.** 48 urte. 2011-I-8.
- **Alberto Lizarralde Aretxabaleta.** 85 urte. 2011-I-9.
- **Digna Alvarez Conde.** 85 urte. 2011-I-11.

## JAIOTAKOAK

- **Unai Medina Chico.** 2010-XII-24.
- **Aitor López Martínez.** 2010-XII-25.
- **Raian Cervo Sbita.** 2010-XII-27.
- **Manex Orueta González.** 2010-XII-27.
- **Jon Guinea Aristregi.** 2010-XII-29.
- **Jule Olabegogeaskoetxea Azpiazu.** 2010-XII-31.
- **June Valladares Iglesias.** 2011-I-2.
- **Iker Magalhaes Carvalho.** 2011-I-2.
- **Ibai López Canado.** 2011-I-4.

## zinea Coliseoan

**14an:** 22.30
**15ean:** 19.30/22.30
**16an:** 17.00/20.00
**17an:** 20.30

### "Los próximos tres días"

*Zuzendaria:* **Paul Haggis**
*Aktoreak:* **Russell Crowe, Elizabeth Banks, Liam Neeson, Olivia Wilde**



John Brennan-ek bizitza zoriontsua du Lara bere emaztearen eta Luke bere semearen ondoan. Guztia aldatuko da Lara, hilketa batez akusatuta, 20 urterako kartzela zigorra jasotzen duenean. Emaztearen errugabetasuna erakutsi nahiko du Brennan-ek.

**14an:** 22.30
**15ean:** 19.30/22.30
**16an:** 17.00/20.00
**17an:** 20.30

### "Camino a la libertad"

*Zuzendaria:* **Peter Weir**
*Aktoreak:* **Jim Sturgess, Ed Harris, Colin Farrell, Saoirse Ronan**




Siberiako gulag bateko Sobietar Batasuneko lan-eremu batetik ihes egingo du presoen talde batek, euren artean batera doan laukoteak. Amaierarik gabeko 10.000 kilometro egin beharko dituzte Indiara iristeko, biziraupen proba gogorrean.

**14an:** 22.30
**15ean:** 19.30/22.30
**16an:** 20.00
**17an:** 20.30

### "The Green Hornet" 3D

*Zuzendaria:* **Michel Gondry**
*Aktoreak:* **Seth Rogen, Cameron Díaz, Jay Chou, Christoph Waltz**



Britt Reid egunkari ospetsu bateko jabea da, gauez justizia egiten duen Liztortzar Berdeaz mozorrotzen dena. Jendeak, hala ere, erreparorik gabeko lapurtzat du. Reid-ek bere identitatea ezagutzen duen Kato txoferra izango du lagun krimenaren aurkako borrokan.

**16an:** 17.00/20.00

### "Las aventuras de Sammy" 3D

*Zuzendaria:* **Ben Stassen**
*Pertsonaiak:* **Melanie Griffith, Isabelle Fuhrman, Anthony Anderson, Yuri Lowenthal,**




Sammy dortokak, hondartzan jaio eta gero, bere bizitzako lehen hamar urteak Ray bere lagunarekin emango ditu itsasoan. Haur batek jasoko du eta hippy komunitate bateko maskota bihurtuko. Bikotearen bila, hainbat abentura biziko ditu munduan zehar.

## horoskopoa

**ARIES**
Gabonetan topera ibili zara; hori nabari da. Baina orain apur bat zaintzea gomendatzen dizut, gorputzak benetan eskertuko dizu.

**TAURUS**
Lasaitu zaitez: bolada txarra pasatzen ari zara, baina gauzak aldatzen hasiko dira eta, asteburutik bertatik aurrera, dena ondo joango da.

**GEMINI**
Ez baduzu zure iritzia ematen, gero zergatik kexatzen zara? Gauzak momentuan esan behar dira, bestela gero beranduegi izaten da-eta.

**CANCER**
Beherapenetan beharrezkoak diren gauzak erosi beharko zenituzke eta ez merke topatzen duzun guztia. Dirua zaindu: geroa duzu zain.

**LEO**
Gabonetako oporrek behar zenuen atsedena eman dizute eta orain pilak kargatuta dauzkazu edozerri aurre egiteko. Aprobetxatu aukerak!

**VIRGO**
Lagaizu behingoz MP4a lagunekin zaudenean; bestela, gero ez esan ez dizutela ezer kontatzen. Arazoa duzu: zeu ez zara enteratzen!

**LIBRA**
Lagun bi daude zutaz maiteminduta; ez al zara konturatu? Ba eurek ez dizute begirik kentzen. Ondo fijatu, gertu-gertu dituzu-eta!

**SCORPIUS**
Buruan dituzun ideia guzti horiek baten bati kontatzea gomendatzen dizut, ideiak aurrera eramateko laguntza beharko duzu-eta.

**SAGITTARIUS**
Zurea bai sex-appeala! Zenbat ligatu duzun Gabonetan... Asteburu honetan ere aukera asko izango dituzu. "Irresistiblea" omen zaude!

**CAPRICORNIUS**
Zapatuan ezuste izugarria jasoko duzu: aspaldi ezagutu zenuen lagun harekin egingo duzu topo berriz. Ez galdu aukera berri hau.

**AQUARIUS**
2010ean gauza asko lortu dituzu, agian zuk espero ez zenituenak ere. Baina, kontuz, ez pentsa edozer lor daitekeenik. Zortedun zaitugu.

**PISCIS**
Ez laga dena azkenengo momentura arte, gero besteek konpondu behar izaten dituzte-eta zure arazoak. Jakizu ohitura kaskarra dela hori!

## Barixakua 14

**INAUGURAZIOA**
**20.00.-** Einer Rodríguez Ponce-ren *"Oroipen Artean"* I. Argazki Zaharberrikuntzaren Erakusketaren inaugurazioa. Untzaga Zentro Sozialean (erakusketa aretoan).

**KONTZERTUA**
**22.30.-** Danbaka finaleko hiru taldeen (Xarma, Lord Witch eta Desprezio) eta Atom Rumba taldearen kontzertua. Sarrera: 5 euro (3 euro Gaztekutxarekin). Elgetako Espaloian.

## Zapatua 15

**SAN ANTON JAIAK**
**10.30.-** Pelota jaialdia: Kortabarria-Alvarez vs Andonegi-Erik. Zubizarreta-Egaña vs Unamunzaga-Karmona.Altzubarren frontoian. **10.30.-** Mountain-bike martxa. Irteera eta helmuga Azitaingo plazan (elizaren aurrean).
**10.30.-** IV. San Anton xake lehiaketa.
**11.30.-** Umeendako jolasak, Azitaingo plazan.
**13.00.-** Sari-banaketa ekitaldia, Azitaingo plazan. Parte-hartzaile eta ikusle guztientzat txorizoa eta edaria doan.

**ANTZERKIA**
**17.00.-** *"¡Uuuiii!"*, Pentación Espectáculos taldearen eskutik (familia osoarentzat, xaboi-burbuila ikuskizuna). Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

## Domeka 16

**MUSEOAREN 4. URTEURRENA**
**10.00/13.00.-** Museoa Zabalik (sarrera doan).
**11.30.-** Rubén Darío-ren jaiotzaren mendeurrenari omenaldia: poesia errezitala eta dantza emanaldia, Lacasiun Latinoamerikako emakumeen elkartekoen eskutik.

**SAN ANTON JAIAK**
**11.00.-** Meza herrikoia parrokian (eskaintza bereziak, bertsoak, dantzak…).
**12.30.-** Euskal dantzak, Kezka Dantza Taldearen eskutik. Umeentzat oparien zozketa. Euskal produktuen dastaketa txosnan.
**13.30.-** Jaiarekin amaitzeko, San Anton otarren zozketa.

**KALEJIRA**
**11.00.-** Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

**HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA**
**18.00.-** Pantxika eta Txinparta-ren *"Ederra zalaparta"* haurrentzako ikuskizuna. Karrika tabernan (Bista Eder).

## Astelehena 17

**PLENO BEREZIA**
**09.15.-** Aurtengo Aurrekontu Orokorra onartzeko proposamena. Udaletxeko pleno aretoan.

**SAN ANTON JAIAK**
**19.00.-** San Anton Eguna denez, auzoko eta familia guztien premien eta urtean hildakoak gogoratzeko meza berezia.

## Martitzena 18

**IKASTEN**
**09.15.-** *"Bioteknologia"*, Félix Elorzaren eskutik. Armeria Eskolan.

**MUSEOAREN 4. URTEURRENA**
**10.00/13.00.-** Museoa Zabalik (sarrera doan).

## Eguaztena 19

**IKASTEN**
**11.00.-** Kafe-tertulia: *"Jubilazio eta pentsioen etorkizuna"*. Deportiboan.

## Eguena 20

**IKASTEN**
**10.00.-** *"Marea y oleaje. Formación e influjo sobre el medio y las personas"*, Castor Garateren eskutik. Armeria Eskolan.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 9 | 1 | | | | | 4 |
| | | | | 4 | | | 9 | |
| 8 | | | | | 5 | 3 | | |
| | | | 2 | | 1 | 7 | | |
| 2 | | | | 6 | | | | 1 |
| | | 3 | 7 | | 9 | | | |
| | | 6 | 5 | | | | | 7 |
| 3 | | | | 9 | | | | |
| 9 | | | | | 6 | 5 | | |

## DENBORAPASAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 9 | 2 | 5 | 7 | 4 | 1 | 8 | 6 |
| 7 | 6 | 5 | 1 | 9 | 8 | 3 | 2 | 4 |
| 8 | 4 | 1 | 2 | 3 | 6 | 9 | 5 | 7 |
| 2 | 8 | 3 | 6 | 4 | 5 | 7 | 9 | 1 |
| 9 | 1 | 6 | 3 | 2 | 7 | 5 | 4 | 8 |
| 4 | 5 | 7 | 9 | 8 | 1 | 6 | 3 | 2 |
| 6 | 7 | 9 | 8 | 5 | 2 | 4 | 1 | 3 |
| 1 | 3 | 8 | 4 | 6 | 9 | 2 | 7 | 5 |
| 5 | 2 | 4 | 7 | 1 | 3 | 8 | 6 | 9 |

AURREKOAREN EMAITZA

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## erakusketak

– *Urtarrilaren 26ra arte*

***SARA PEÑALBA****ren* “Amerikabegiratzen” Boliviako argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*

– *Urtarrilaren 31ra arte*

***BAKARNE ELEJALDE****-ren* “Lanzarote” argazki erakusketa. *Portalean.*

***JOSE LUIS MARTINEZ****-en* “Turkia” argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

***PEDRO ARRIOLA****-ren* “India” argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

– *Otsailaren 2ra arte*

***EUSKO TREN****en* unitate berriak ezagutzera emateko erakusketa. *Txaltxa Zelaian.*

– *Otsailaren 6ra arte*

***“OROIPEN ARTEAN”*** I. Argazki Zaharberrikuntza-ren Erakusketa, Einer Rodríiguez Ponce-ren lanekin. *Untzaga Zentro Sozialean* (erakusketa aretoan).

– *Otsailaren 13ra arte*

***“MY WAY, NO WAY, ANYWAY”*** Ismael Iglesias-en irudi erakusketa. *Portalean.*

– *Otsailaren 28ra arte*

***FERNANDO BEORLEGI****ren* *“Gogoaren pintzelkada garratzak”* erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoan (martitzenetik zapatura 11.00-13.00 eta 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).

## lehiaketak

– **Toribio Etxebarria Sariak 2010.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 24ra arte*, www.bicberrilan.com helbidean.

– **“Aratosteak 2011 Eibarren” kartela.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte*, Pegoran.

– **Narruzko Zezen Sariak.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Urtarrilaren 28ra arte*, Hezkuntza Esparruan (943254465).

– **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era arte*, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartean.

## farmaziak

***14, barixakua***
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

***15, zapatua***
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

***16, domeka***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

***17, astelehena***
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***18, martitzena***
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

***19, eguaztena***
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

***20, eguena***
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

***21, barixakua***
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

## SARRERAK

**ANTZERKIA:**
***“Uuuiii”.***
Urtarrilak 15, 17.00.

**DANTZA:**
***Break Dance.***
Urtarrilak 21, 20.30.

**salgai**

## ikastaroak

– **Makrobiotika ikastaroa.**
Noiz: *Urtarrilak 25 eta 27 eta otsailak 1 eta 3*, 19.00etan Portalean (sukaldean).
Izen-ematea: Urtarrilaren 21era arte, …eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartea, 943200918 telefono zenbakia).
10 euro (…eta kitto!-ko bazkideentzat eta berbalagunentzat doan).

## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................*112*
Pegora ............................*010*
Udaletxea .........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.....*943 20 15 25*
Mankomunitatea*943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB ................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas ...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..*943 22 22 22*
Mendaro osp.....*943 03 28 00*
Anbulategia......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak........*902 11 20 88*
Ertzaintza .........*943 53 17 00*
Eusko Tren .......*902 54 32 10*
Pesa .................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
.........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Juan Antonio Mogelen. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Aukera ezin hobea. Tel. 659-508607.

### 1.2. Errentan

– 2/3 logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel. 618-877901.
– Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-872295.

### 1.3. Konpartitzeko

– Logela behar da konpartitzeko. Tel. 688-819475.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– 20 tonatako Scania markako kamioia salgai lanarekin. Gaitasun profesionala behar da. Tel. 685-724273.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.
– Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai (marra) Untzagan, Txaltza-Zelai azpian. Tel. 658-339709.
– Garajea alokagai San Pio X-ean. Tel. 650-016440.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-617818.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-935379.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 618-695736.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.
– Mutila eskaintzen da peoi, sukaldari-laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 608-376387.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko, sukaldari-laguntzaile moduan eta umeak zaintzeko. Tel. 681-178842.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 3 urteko esperientzia. Tel. 635-187901.
– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 605-129530.
– Mutila eskaintzen da pintura lanak egiteko. Tel. 610-017571.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Ordutegi zabala. Esperientzia. Tel. 678-972690.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 689-798284.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka edo gauez. Tel. 630-365137.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Interna edo orduka. Tel. 608-820954.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 08.00etatik 10.30-etara eta 16.00etatik aurrera. Tel. 670-999680.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-826542.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-257875.
– Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko: tabernak, pegorak etb. Orduka. Tel. 628-014327.
– Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 685-765340.
– Neska gaztea eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 663-682150.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Mutil gaztea eskaintzen da umeei ngelesezko klase partikularrak emateko umeei. Tel. 685-765340.
– Txakur-hezitzailea eskaintzen da oinarrizko obedientzia, portaera aldaketak etabarreko klaseak emateko. Tel. 645-724397.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Play Station 2a salgai. Buzz, Eyeroy, Singstar eta beste 22 jokorekin. Ordenagailurako zazpi joko. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 658-756462 eta 943-702583.
– Lur saila salgai. 21.000 m²: 15.000 Maxpen eta 6.000 Kalamuan. 60.000 euro. Negoziagarriak. Tel. 965-876118 edo 649-445104.

### 6.2. Eman

– Arropak lehortzeko makina zaharra oparitzen da. Egoera onean. Tel. 943-702030.

### 6.4. Bestelakoak

– Kotxe-kapota, sehaska, maxi-coxia eta silla erosiko nituzke. Egoera onean eta merke. Tel. 618-714616.
– Eibarko lagun bik lagunak nahi dituzte irtetzeko. Tel. 669-911573 eta 658-732727.



# MATRIKULA ZABALIK

## Urtarrilaren 10etik aurrera

*Ikastaro presentzialak:*

ORDUTEGI ETA MAILA GUZTIAK

ZIBERGELA: ordenagailuak, internet

EGA eta HABEren titulu ofizialak

(Administrazio, Osakidetza eta Ertzaintzaren perfilen baliokideak)

SAKONTZE IKASTAROA (EGAtik gorakoa)

asteazkenetan (17:30-19:30) eta ostegunetan (18:30-20:30)

Eibarko Udalak eta HABEk diruz lagundutako zentroa

Bekak

**EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA**

**Bista Eder 10 -PORTALEA-**

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89






**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

Ane Mendia

970 kol. zkia.



Tecarterapia

Kirol lesioak

Masajeak

Tendinitisak

Bizkarreko minak

Esginzeak

Etxez-etxeko zerbitzua



Arragueta, 20 - behea 943 530642


UNBE
ORBEA
IGERILEKUA
PADELPISTAK
TENISPISTAK
SPA
ZORIONAK!
eta
2011.
URTE
kirolari
X
ON!
Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar